


Nanoteknologia pobatzen giza garunean



FRANTZIAKO Energia Atomikoko Komisariatuak sostengatzen duen Grenobleko Clnatec laborategiak baimena jaso du 2013tik aurrera giza garunean mikrotxipak jartzeko. Helburua Parkinson gaitxotasunaren, tetraplegiaren eta depresioaren aurkako borrokan urratsak ematea da.

Laborategiak sei logela, ebakuntza-gela bat eta 60

teknikari ditu, guztiak nanoteknologian espezializatutako ingeniari, mediku eta biologoak.

Boluntario tetraplegiakoei, esaterako, elektrodoak dituen kutxatxo bat ezarriko diete garunean. Kutxatxo horretan garuneko jardura erregistratu eta hori, hanka edo beso robotizatu baten bidez, mugimendu bilakatuko dute. Parkinsona dutenen kasuan, berriz, gaitza sortzen duten garuneko uhinak berraldatzen saiatuko dira.

Saiakerak zenbaterainoko arrakasta eduki duen jakiteko 2014 arte egon beharko dugu zain. ■



Zientzialariak laguntza eske

BIZITZEN ARI GAREN KRISIA luze jotzen ari da, eta administrazio publikoetan dauden murrizketekin batera, gure enpresetako erreserbak ere gutxienekoaren azpitik daude. Artikulu honen helburua ez da krisitik nola aterako garen esatea, baina bai harekin zerikusia duten gertakizun batzuen berri ematea.

Hego Euskal Herrian, eta batez ere EAEn, ikerketa eta garapenean egindako inbertsioa Europaren batez bestekotik gora izan da orain arte. Aurten Espainiako administrazioak miseria gorrian utzi ditu ikerkuntza-zentroak eta gureak ere nabaritzen hasi dira hori. Eusko Jaurlaritzak ikerketa eta garapenerako dituen programetan zer gertatuko den ez dakigu —eta urtea amaitzeaz da!—, baina euskal ikerlarien kezka nabarmena da. Europar Batasunak murrizketak iragarri ditu datorren urterako, baina ez da espero Espainian gertatzen ari den adinako basakeria.

Jaurlaritzak berriak erronka ederra du alor honetan, eta bi aukera baino ez: espainiarra izan edo geurea izan, ez baitugu ahaztu behar etorkizunaren zati handi baten funtsa orain iker-tzen dugunaren arabera izango dela. Segituko dugu. ■



Ilegorriek melanomak izateko arrisku handiagoa dute

Gauza jakina da ile horia eta azal zuria dituzten pertsonen beltzaranek baino usuago izaten dituztela erredurak larruazalean, eguzkiaren eraginez. Orain gutxi argitara emandako ikerketa baten arabera, gainera, ile gorria dutenek melanoma —larruazaleko minbizi— gehiago garatzen dute, eguzkia hartu gabe ere.

ttiki.com/44123
(Gaztelaniaz)

Eguzki Sistemako arroilarik handiena, Marten

Marteko Marineris arroila da Eguzki Sistemako handiena. 4.000 kilometroko luzera du, 200 kilometroko zabalera, eta hamaika kilometroko sakonera izatera ailega daiteke. Datu horiek Mars Express zunda europarrak igorritako irudietatik ondorioztatu dira.

ttiki.com/44124
(Gaztelaniaz)

Aire egokituaren eragina udako kontsumo elektrikoan

Carlos III Unibertsitateko eta CSICeko ikerlariak Madrilén uda dagoen kontsumo elektriko aztertu dute eta ondorioa argia izan da: aire egokituak kontsumoaren herena baino gehiago eramaten du. Aholku interesgarriak eman dituzte hori gutxitzeko.

ttiki.com/44125
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak
 multimedia
 aholkularitza
 edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16